

Enpresa onuradunentzako programari buruzko arautegia

 micropymes

Informazio-gizartean microETEn
sarrerarako Bazkundera-Foru Aldundia
programa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

 ganberak

1.- Programako laguntzaren azalpena

Honako ekintza hauek garatuko dira programan, aholkulari homologatuaren laguntzaz: **oinarrizko web orria** egitea, **Gipuzkoa Marketen**, Gipuzkoako Bazkundera eta Gipuzkoako Foru Aldundiko **online marketin-zerbitzuen web berria** **alta** hartzea eta **enpresako pertsona bat prestatzea**, **Interneteko edukiak eguneratzeko**. Ekintza horiek enpresa-negozioa hobetzea dute helburu, Interneten agertuta. “i-micropymes” programak aholkulariaren lanaren kostua, domeinuaren lehen urtea, web orriaren lekurapena eta online marketin-zerbitzuen web orriko agerpenerako **diruz laguntzen du**.

2.- Programako onuraduna izateko eskakizunak

- a) **Jarduera ekonomikoa Gipuzkoako Lurralde Historikoan** garatzen duten enpresak edo autonomoak izatea.
- b) **10etik behera langile** edukitzea.
- c) **Zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak** egunean edukitzea.
- d) Lantokian **ordenagailua eta Interneterako konexioa** edukitzea.
- e) Aurretiaz i-micropymes programan **parte hartu ez izana** eta IKTen arloan (informazioaren eta komunikazioaren teknologietan) Gipuzkoako Foru Aldundiko beste laguntzarik jaso ez izana.
- f) Gutxienez, jarduera bat bezero partikularrentzat garatzea (produktuak eta zerbitzuak).
- g) Laguntza eskatzeko orria **oso-osorik** eta behar bezala betetzea.
- h) **215 € + BEZ** ordaindu beharko dira programan parte hartzeko.

3.- Programako prozedura administratiboaren azalpena

3.1.- Laguntza eskatzeko orria lortzea

- Gipuzkoako Bazkundera egoitzan (Tolosa etorbidea 75 - 20018 Donostia).
- Programaren www.i-micropymes.com web orrian.
- Aldez aurretik helbide honetara eskatuta, posta elektronikoaren bidez:



i-micropymes@camaragipuzkoa.com.

- Beste sistema batzuen bitartez, **943 000 285** telefonora deituta.

3.2.- Laguntza eskatzeko orria beteta aurkeztea

Eskabide-orria beteta, **sinatuta eta zigilatuta** aurkeztu beharko da Gipuzkoako Bazkundera egoitzan (Tolosa etorbidea 75 - 20018 Donostia). Bestela, ohiko postaz bidaliko da helbide berera, eta "I-MICROPYMES PROGRAMA" jarriko da gutunazalean.

"i-micropymes" programak posta elektronikoz baino ez ditu bidaliko arautegi honek barne hartzen duen programaren kariatara egin beharreko jakinarazpenak, hori dela eta, enpresa onuradunak eguneratua eduki behar du harremanetarako helbide elektronikoa eta helbide hori enpresako pertsonaren batena izango da.

"i-micropymes" programa enpresa eskatzaileekin harremanetan jarriko da, hauek xedea ezagutzen dutela eta laguntza eskatutako programaren ezaugarriak ezagutzen dituztela bermatzeko.

3.3.- Lan-espedienterako aholkularia hautatzea

Homologatutako enpresa aholkulariek, "i-micropymes" programan parte hartzen dutenean, gehienez 3 lan egin ditzakete aldi berean.

Enpresa onuradunak enpresa aholkulari bat aukeratzeak ez du lana burutuko denik bermatzen: gerta daiteke aukeratutako enpresa aholkularia aldi berean 3 lan egiten jardutea eta, hala bada, eskatutako aholkularitza-lana enpresak 3 lan horiek amaitu arte zain geratuko da, aurrez besteren bat egiteko hitza emanda ez badago.

Egoera honetan programa amaituz gero, laguntzetarako partida ekonomikoa amaitu delako, zain dagoen enpresak ez du onuradun izateko eskubiderik izango. Horrelakorik gerta daitekeela aurreikusiz gero, "i-micropymes" programa enprekin harremanetan jarriko da, aholkulariz aldatu eta laguntzetan parte hartu nahi duten ikusteko eta lana berehala hasteko.

Eskarien orrian enpresak ez badu adierazi homologatutako zein aholkularirekin egin nahi duen lana, "i-micropymes" programa laguntza eskatu duen enpresarekin harremanetan jarriko da honakoak jakiteko:

- "i-micropymes" programaren esku uzten duela, bere lan-espedienteaz arduratzeko aholkularia izendatzeko zeregina.
- Aholkularia pertsonalki aukeratu nahi duela. Kasu honetan enpresari posta elektronikoz igorriko zaio i-micropymesek homologatutako aholkularien zerrenda, egoki irizitako irizpideen arabera aukeratu dezan. Igorri eta astebete igaro ondoren enpresak aholkularia aukeratzeko ez badu, programak homologatutako aholkulari bat izendatuko dio.



3.4.- Programako onuradun moduan onartua izatea

“i-micropymes” programako laguntzetan sartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, enpresa eskatzaileak jakinarazpen bat jasoko du **215 € + BEZ** laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela adieraziaz, kopuru hori baita programan parte hartzeko erabakitakoa.

Orduan kontzeptu horrengatik **faktura** igorriko zaio.

Faktura honen ordainketa jasotzea ezinbestekoa da lana abian jartzeko.

Enpresa onuradunaren ordainketa jasotakoan, honek jakinarazpen bat hartuko du posta elektronikoz programan **izena emana** onartu zaiola adieraziaz.

Jakinarazpen horretan, honako hauxe agertuko da:

- Programaren web guneko (www.i-micropymes.com) “enpresa parte-hartzaileen gunean” sartzeko pasahitza, nahi izanez gero, espedientearen online jarraipena egiteko.
- Aholkularitza-lana egiteko esleitutako aholkulariaren egiaztapena.

3.5.- Aholkularitza-lana garatzea

Jakinarazpena jasotakoan, aholkulariak **30 eguneko** epea izango du, behar den moduko aholkularitza-lana egiteko. Epe horren amaieran, gainera, **enpresako pertsona bat prestatu beharko du**, enpresaren oinarrizko web orriko **edukiak eguneratu ditzan**. Gehienez ere, epea 30 egunez luzatu ahal izango da, aholkularia eta enpresa ados jartzen badira eta Gipuzkoako Bazkunderari idatziz jakinarazten badiote. Epealdi horretan, aholkulariak eta enpresak bi bilera egin beharko dituzte gutxienez:

- 1. bilera. Hona hemen helburuak:
 - Enpresaren oinarrizko web orria ezartzeko helburua zehaztea eta kokatzea, Interneteko agerpen-premiak kontuan hartuta.
 - Garatu beharreko lana azaltzea eta proposatzea eta webeko agerpenerako beharrezkoak diren edukiak biltzea.
- 2. bilera. Hona hemen helburuak:
 - Garatutako web orria aurkeztea.
 - Enpresa prestatzea, Interneten duen informazioa eguneratu dezan.

Oso garrantzitsua: programak web orri berriaren sorrera diruz laguntzen duenez, ezin izango da inolaz ere lehendik dagoen web orria aldatu eta hobetu.

Aholkularitza-lana amaitutzat emango da:



- Enpresak Interneteko domeinua duenean (aurretiaz ez bazeukan) eta, gutxienez, bertara atxikitako posta elektronikoa eratuta duenean.
- Enpresaren oinarriko web orria abian dagoenean eta, gutxienez, honako orri-egitura hau daukanean:
 1. Enpresaren aurkezpena.
 2. Jarduera, zerbitzuak eta produktuak.
 3. Lokalizatu, harremanetan jarri.
 4. Legezko oharra.

Web orria zenbait hizkuntzatan argitaratzeko prest egongo da, baina enpresak berak sartu beharko ditu hizkuntza horietan dauden edukiak.

Egindako web orrian adibideak programaren web gunean ikus daitezke: <http://www.i-micropymes.com/eu/web-creadas.php>

- Web gunera atxikita dagoenean. Orduan, Google Analytics tresna eratuko da, jasotako bisiten trafikoa ikusi eta aztertu ahal izateko.
- Enpresak Gipuzkoako Marketen alta hartu duenean.
- Aholkulariak enpresa bera prestatu duenean, bere web orrian aldaketak egiteko eta Google Analytics tresnaren bidez bere web orriaren jarraipena egiteko.
- Programa kudeatzeko aplikazioaren barruan, aholkulariak programan sortu beharreko agiri guztiak espedientean sartzen dituzten.
- Enpresa eskatzaileak aholkulariak egindako lana onartzen duenean (berariazko oniritzia) eta aholkularia balioesteko galde-sorta behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta aurkezten duenean.
- “**i-micropymes**” programak egindako lanaren kalitatea egiaztatu duenean, onartu baino lehenago eman beharreko azken urrats moduan.

Egindako lana egiaztatutakoan, enpresari eta aholkulariari jakinaraziko zaie aholkularitza-lana amaitu egin dela.

3.6.- Urraketak.

Aholkularitza egitea erabakitako lanak burutzen ez badira, programari edo aholkulariari egotz dakizkiokeen arrazoien ondorioz, enpresari programan parte hartzeko emandako kopurua itzultzeko eskubidea izango du.



Laguntza eskatzeko orria

imicropymes

**Programa Cámara-Diputación
para la incorporación de las Micropymes
en la sociedad de la información**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA
Ganberak

Programaren laguntza eskatzen duen enpresaren identifikazioa, aurrerantzean ENPRESA	
IFK	
Izen soziala	
Merkataritza-izena	
Posta-helbidea	
Posta-kodea	
Udalerrria	
Langile kopurua	
EJSN nagusia	

Eskariaren inprimakia bete duen ENPRESAKO ordezkariaren identifikazioa, aurrerantzean ORDEZKARIA	
NAN	
Izen-abizenak	
Kargua	

Programan parte hartzeagatik jasoko dituen jakinarazpen administratiboetarako ENPRESAREN harremanetarako datuak	
Harremanetarako pertsona	
Kargua	
Harremanetarako helbide –e	
Harremanetarako tfnoa	
Harremanetarako faxa	

Zer hizkuntzatan egingo den aholkularitza: **Gazteleraz** **Euskeraz**



Baduzu Interneteko domeinurik? **Bai** **Ez**

Erantzuna baiezkoa da, zein?

.....

Baduzu web orririk? **Bai** **Ez**

Erantzuna baiezkoa da, zein da zure web orriaren helbidea?

.....

Baduzu ordenagailurik eta Interneteko konexiorik lantokian? **Bai** **Ez**

Garatzen duzun jardueraren bat bezero partikularrentzat da (produktuak edo zerbitzuak)? **Bai** **Ez**

Erantzuna baiezkoa da, zein?

.....

.....

.....

Helburuen azalpena

Labur-labur azaldu zein diren Interneten agertzean bete nahi dituzun helburuak:

.....

.....

.....

.....

Programan parte hartzeagatiko erreziboa helbideratuko dizugun kontu zenbakia:

Erakundearen kodea	Bulegoaren kodea	Kontrol digitua	Kontu zenbakia

Lana aholkulari jakin batekin egin nahi baduzu, hemen jakinarazi:

Aholkulariaren izena:

Aholkulariaren enpresa:



Agiri hau sinatu eta dagozkian agiriak igorrita (programa hau arautzen duen araudian ageri den administrazio prozedura kontsultatu), "Micropymeak informazioaren izartean sartzeko Ganbera-Foru Aldundia programa: i-micropymes"-eko onuradunen zerrendan ENPRESA sartzeko eskatzen da, programa horrek eskaintzen dituen laguntzak lor ditzan.

ORDEZKARIAK agiri hau sinatuta:

- Laguntza honen xedea ezagutzen du eta berariaz onartzen ditu, ENPRESAren izenean eta bera "i-micropymes" laguntzen onuradun izaten bada, programa hori arautzen duen araudian jasotako administrazio prozeduran deskribatutako baldintzak.
- Emandako identifikazio datuak egiazkoak direla ziurtatzen du eta ondoren ziurtatzeko eska dakiokkeen agiri oro emateko konpromisoa hartzen du, eskaintako informazioa egiazkoa dela ikus dadin.
- Gipuzkoako Ganbera eta Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua baimentzen ditu bere izenean dagokien ziurtagiriak eska ditzan eskatzailea betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzarekin ditugunak betetzen dituela ziurtatu ahal izateko eta enpresaren neurria ezartzeko behar diren datuak jasotzera.

Ezagutzen ditu, onartzen ditu eta ados dago termino eta baldintza hauekin eta horiek ezarriko zaizkio laguntza ematen bazaio:

- **Hosting, posta eta domeinu** zerbitzuetarako, enpresak **REDCORUNA S.L.U.-k** hornitutako zerbitzuen terminoak eta baldintzak onartuko ditu. Euskarria enpresa honek emango du:

contacto@redcoruna.com

Tlf: (+34) 902 99 81 53 - Fax: (+34) 901 02 17 99

IFK. B-27324318.

Ruanova 76, 1. 27001 Lugo

- Garatutako webaren **salmenta ondorengo kargurik gabeko euskarria** akatsak edo hutsegiteak konpontzera mugatuko da soilik, horiek garatu dituen enpresari egotzi ahal bazaizkio.

Lana amaitutakoan hasiko da **berme aldia**; aldi hori lana amaitzen denean kontaktzen hasi eta **4 hilabetekoa** izango da. Aldi horretan, enpresa aholkulariak bermatuko dio onuradunari webaren funtzionamendu ona eta enpresa onuradunarentzako inolako gasturik gabe egingo ditu emandako produktuan hautemandako akats eta gabezien konponketak.

Beraz, berme aldiaren enpresak akatsen bat hautemanez gero garatutako webaren funtzionamenduan, berehala jakinarazi beharko dio lana egin zuen enpresa aholkulariari.

Berme honek balio izateko, baldintza hauek bete behar dira:



1. Enpresak (edo hirugarrenek enpresaren izenean) ez du web gunearen funtzionamendu txarra eragingo FTP bidez, kontroleko panelaren bidez edo Joomla administrazio panelaren bidez egindako ekintzen ondorioz.
 2. Web gunea ez da beste web zerbitzarietara migratuko.
 3. Hosting zerbitzuaren hornitzaileak ez du zerbitzarian aldaketarik egingo (sistema eragilea eguneratu, software bertsioak eta datu-baseak, etab.).
 4. Enpresak (edo hirugarrenek enpresaren izenean) ez dute aldatuko edo zabalduko web gunearen oinarritzko sistema (Joomla CMS). Adib.: osagaiak instalatu, moduluak, template delakoak edo plugginsak, sistemaren kode iturria aldatu, edo ofizialak ez diren hirugarrenen script/ezarpenekin integratu.
- Web orria garatzeko zerbitzua **Software Joomla!™ CMS** delakoan oinarritzen da (eta bere gune ofiziala honakoa da www.joomla.org). Software honen copyrighta hau da: 2005-2008 [Open Source Matters, Inc.](http://www.opensource.org) Softwarea libre eta doan erabil daiteke eta [GNU General Public License](http://www.gnu.org/licenses/gpl.html) terminoek arautzen dute.
 - Enpresa onuraduna da garatutako **web gunearen arduraduna**, bertan argitaratzen diren eduki/argitalpena eta testuen, irudien eta argitaratutako edukien egile-eskubideena.
 - Gipuzkoa Marketen zerbitzurako, enpresak onartu egingo ditu **GIPUZKOA MARKETek** hornitzen dituen terminoak eta baldintzak. Euskarria honakoak emango du:

soporte@gipuzkoamarket.com

Tolosa hiribidea 75. CP 20013 Donostia-San Sebastián

Emandako datuak Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera fizialeko fitxategi automatizatu batean sartuko dira “i-micropymes” programan enpresen parte-hartzea kudeatzeko, baita zure interesekoak direla uste dugun informazio komertziala bidaltzeko ere; datuok “i-micropymes” programarako homologatuko diren kontsultoreei eman ahal izango zaizkie enpresarekin harremanetan jartzeko, enpresa horretako lan-espeditentiaz arduratuko baitira. 15/99 L.O.ren arabera datuetarako sarbidea izan nahi baduzu, aldatu edo ezeztatu egin nahi badituzu edo aurka baldin bazaude, gure bulegoetan egin dezakezu.

Adierazitakoaren arabera erabiltzeko baimena ematen dut: BAI / EZ

Nire datuak adierazitakoaren arabera lagatzeko baimena ematen dut BAI / EZ (datuak lagatzeko baimenik ematen ez bada, ezingo da “i-micropymes” programan parte hartu).

.....an,(e)koarenean

Izenp.: ORDEZKARIA
ENPRESAREN zigilua

